



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZA

IKASTURTEA 2016-2017

HALA JAIO DA: TRANSEXUALITATEA, ILUNPETIK ARGIRA

EGILEA: Etxahun Gonzalez Sarria

ZUZENDARIA: Iñaki Lazkano Arrillaga

Data, 2017ko maiatzaren 31a

AURKIBIDEA

1. Erreportajea

Hala jaio da: transexualitatea, ilunpetik argira 3-19

1.1 Zatidurak

1.1.1 Glosarioa 20-21

1.1.2 Jon Bermeosolo, Ireberren irakaslea 22-24

1.1.3 Andaluziako lege-eredu berritzailea 25-26

2. Memoria

2.1 Laburpena 28

2.2 Sarrera 28-29

2.3 Helburuak 29-30

2.4 Metodologia 30-37

2.5 Ondorioak 37

Hala jaio da: transexualitatea, ilunpetik argira

Gutako bakoitza bakarra da munduan, ez da inoiz gu bezalakorik egon, egun ez dago, eta ez da egongo. Horixe izan daiteke maitatzearen arrazoi funtsezkoena: ez dago zu bezalako inor, eta horregatik zaitut gustuko.

Ireber, Iraide eta Alai desberdinak dira haien artean ere, baina hirurek partekatzen duten ezaugarri bat daukate: jaiotakoan ezarri zieten sexua ez da sentitzen duten sexu bera. Haurra da Alai, nerabea Ireber, eta heldua, Iraide. Hiru istorio, hiru ingurune, baina desio bera: utzi diezaietela haiek direna izaten, besterik gabe.

Iraultza-eztanda

Azken urteotan familiaren babespean ezagun egiten ari diren haur transexualen kasuak albiste dira, hein handi batean, orain arte ez direlako jendaurrean horrela agertu. Ohikoagoa zen umeak, ezkutuan eta ukapenean, sentitzen zuen hori bere barnean gordetzea, familia bera baitzen usu baztertu eta berezitu egiten zuen lehena.

Garaiak ordea, aldatu dira, eta heldu da momentu bat non familia batzuek egoera horri buelta eman nahi izan dioten. Batu egin dira eta haurren identitate, eskolaratze eta gizarte eskubideak defendatzea erabaki dute. Gutxi batzuek hasi zuten Euskadin, bakardadea lagun, ehunka umeren bizitza aldatuko zuen iraultza. Orain ordea, berrogei familia dira gutxienez, Chrysallis elkarteak egindako erregistroaren arabera, gure lurraldean normalizazio osoa lortze aldera iraultza horrekin bat egin dutenak. Datuek ordea, ezagutzen ez diren askoz ere kasu gehiago egon daitezkeela diote: Arartekoak 2010ean Euskadiko transexualen inguruan argitaratutako azken txostenaren arabera, jaiotzen diren 10.000 umetatik bat transexuala da.

Ireber (Errenteria, 2005) da horietako bat. Amaiak, Ireberren amak, argi du: "Berak betidanik jakin du. Txikitatik eskatu ditu apaintzeko osagarriak eta neskaz jantzi da beti. Are gehiago, nik baino hobeto makillatzen du aurpegia".

Hamabi urteko errenteriarra da Ireber. Askok Mikel izenarekin ezagutu zuten estreinako eta oraindik ere Mikel ezagutu zutenean benetan Ireber ezagutu zutela ulertzea zail egiten zaie batzuei.

Hasierako zalantzak: "Homosexuala izan zitekeela pentsatu genuen, hori baita gaur egun normalizatuagoa dagoena" (Amaia, Ireberren ama)

Antzerkian ibiltzen zen Ireber, ederki antzeztu ere. "Ondo sentitzen zen antzezten, eta ez soilik eszenatokietan. Duela gutxira arte, gu ez gara gai izan benetan sentitzen zuen hori ikusteko. Hasieran homosexuala izan zitekeela pentsatu genuen, hori baita gaur egun normalizatuagoa dagoena", dio Amaiak.

Ireberren transexualitatea identifikatzeko zailtasunak izan zituztela aitortu du bere amak: "Gurasook ordu asko ematen ditugu lanean eta seme-alabekin egoteko denbora gutxi edukitzen dugu. Gainera, gure kasuan, bananduta gaude, eta askotan horrekin lotzen genuen gure alabaren jarrera", aitortu du Amaiak.

Amaren lana dela eta, Ireberrek eta bere ahizpak izebarekin pasatzen zituzten eguneko ordu gehienak. Izeba izan zen, hain zuzen, haurra homosexuala ez zela ohartu zen lehena. "Hamaika urterekin aldaketa nabarmenenak izan ziren. Ireber izatez, pertsona urduria da, baina udaberriaren bueltan urduriago sumatzen genuen, ezinegonak jota", azaldu du bere amak. "Argiago ikusten zituen gauzak eta bere gorputzeko anatomia identifikatzen hasi zen. Udan igerilekura joan eta nesken aldageletan aldatu nahi zuen Ireberrek. Gizonen genitalak zituela onartzen zuen, baina mutila ez zela errepikatzen zuen behin eta berriz".

Pentsaera aldatzea eta "beste pertsona bat ezagutzea", horiexek etxean eman behar izan zituzten lehen pausoak, Amaiaaren esanetan. Ireber bilakatu zen Mikel. Mikelek, Ireber azaleratu zuen. "Prozesu hori zaila izan da, baina beti izan da neska, hala jaio da", dio Amaiak.

Bere esanetan, gizonen genitalekin jaiotako ume batek panpinekin jolastea atsegin izateak, futbolean aritu beharrean, ez du zertan ume homosexual edo transexual baten aurrean gaudela esan nahi. "Eman daiteke edo ez. Garrantzitsuena ume horrek eraikitzen duen identitatea arretaz behatzea da, maskulinitatearen eta emetasunaren inguruan ditugun estereotipoak alde batera uzten saiatu behar gara", azaldu du errenteriarrek. Esperimentatzen duten haurrak daude, baina horiek guztiak ez dira transexualak. Itxaron eta ikusi egin behar da, aurreiritzirik gabe behatu: "Behar-beharrezko baldintza bat dago: sentitzen den sexua ez zapaltzea eta ez zigortzea. Norberaren izaera azaleratzen utzi beharra dago", dio Amaiak.

Aldaketak etxean: "Nesken arropak erosi nizkionean, Gabonetako zuhaitza ematen zuen nire alabak, apaingarriz josita" (Amaia, Ireberren ama)

Prozesuaren hasiera ez zen erraza izan. "Ohera ezpainak eta begiak margotuta sartzen zen, ahizparen kuleroak jantzita zituela. Ez zen gogorra izan nire alaba onartzea, alaba inor baino gehiago maite dudalako. Zailena prozesu hori onartzea izan zen", azaldu du Ireberren amak.

Arropak aldatzeko ordua iritsi zen Ireberren etxera. Erosketak egitera joan eta Ireberrek hala eskatuta, nesken arropak erosi zizkion amak: "Gauza gutxi erosi nizkion, oinarritzkoak. Pixka bat ohitu arte, Gabonetako zuhaitza ematen zuen nire alabak, apaingarriz josita. Saihetsezina zen niretzat horrela irudikatzea. Gogorra egin zitzaidan egun batetik bestera aldaketa horiek nire etxe barruan ikustea".

Ama batek, nahitaez, balio eta aurreiritzi batzuk ditu buruan, eta halako kasuetan, horien aurka borrokatu beharra dauka. Askotan, gaizki egiten ari zeneko sententzia izan zuela aitortu du Amaiak, erratzen ari zela, Ireberren gutizia baino ez zela dena: "Baina alaba sufritzen ikusten duzunean, zalantzak desagertzen dira. Informatzen, irakurtzen eta entzuten hasi nintzen. Nork ezarriko du nire alabaren nortasuna? Psikologo batek, mediku batek? Nork berak baino hobeto?".

Aitorpena: "Ni ama naiz eta Ireberrekiko enpatia naturala dut. Baina ezin diet besteei adimen berbera eskatu, ulertzekoa da guztiok berdin ez pentsatzea" (Amaia, Ireberren ama)

Horrelako erabaki edo pentsaera "heldua" ume batek bere kabuz hartzea ulergaitza egiten da euren burua heldutzat duten pertsona askorentzat, eta hortxe sortzen da sarri umea zapaltzen duen lehen harria.

Aldaketa etxera heldu eta hilabete batzuk igarota, txarto sentitzen hasi zen Amaia: estresa, zorabioak, oka egiteko gogoa, bakaraldia... "Emozioak ondo kudeatu behar dira. Ez zen alaba bakarrik, gauza asko zeuden tartean. Familia antolatu beharra dago, beste alaba bat dut ere eta egoerak gainezka egiten zidan askotan. Funtsezkoa da guztiak estu elkartuta egotea, eta hori ez da horrela izan beti", aitortu du Amaiak.

Izan ere, Ireberren familiako kide batzuek oraindik ez dute aldaketa onartzen eta Mikel deitzen diote umeari. "Ni ama naiz eta Ireberrekiko enpatia naturala da, ez dut

esfortzurik behar enpatia izateko. Posible da, beste batekin, enpatia bera ez edukitzea, horregatik ezin diet besteei adimen berbera eskatu. Ulertzekoa da guztiok berdin ez pentsatzea. Hori bai, umearen egoeran jarri eta bere sentimenduak aintzat hartu beharko lituzketela uste dut".

Sexu berriaren bila: "Ez dago beste erremediorik. Buruak neska dela esaten dio, baina mutilaren gorputzak kontraesanez betetzen du nire alaba" (Amaia, Ireberren ama)

Gurutzetako genero-nortasun unitatean testosterona gelditzeko tratamenduarekin hasita dago Ireber. "Ez dago beste erremediorik. Buruak neska dela esaten dio, baina mutilaren gorputzak kontraesanez betetzen du nire alaba. Geroz eta gutxiago errespetatzen du bere gorputza eta horrek beldurra ematen dit. Badakit tratamendu esperimentalek ere min egin diezaioketela, baina hori behintzat ez da ziurra", dio Amaiak. Psikiatraren diagnostikoa egin behar izanak ere gogor jo du Amaia: "Nire alaba ez dago gaixo, baina gaixo egongo balitz bezala tratatzen dute".

Ofizialki ezin du izenik aldatu Ireberrek, Ireber nesken izena delako eta bere nortasun agirian mutila dela jartzen duelako. Hau da, NAN txartelean Mikel jartzen du oraindik eta hamazortzi urte bete arte ezin izango du aldatu. Hala ere, Eusko Legebiltzarrak 2015ean onartutako lege dekretuak esaten du transexualitate aitortua duten nerabeek, bere eguneroko bizitza errazte aldera, genero nortasunera moldatutako dokumentazio administratiboa izan dezaketela aldaketa formala egin arte. Hau da, polikiroldegiko, liburutegiko edo aisialdiko elkarteko txarteletan Ireber izena eta neska dela agertzen da, baita ikastetxeko datu-baseetan ere.

Ikastolan ere arazoak eduki ditu Ireberrek, nahiz eta lehen egun baino burla gehiago egiten zioten. Irakasleak gelakide batzuek Ireberri "gay", "*bicho raro*" eta horrelakoak esaten zizkiotela abisatu zion arte, ez zen egoeraz jabetu Amaia: "Nik umea ondo eta pozik ikusten nuen, baina alaba sufritzen ari zela konturatu nintzenean, ama bezala erratzen ari nintzela pentsatu nuen. Ez nintzen alaba babesten ari".

Oldarkortasuna lantzeko psikologoaren laguntza izan zuten eskolan, eta saio horiek asko lagundu zuten Ireberren etxean. Amaiak lantalde profesional baten babesa sentitu zuen eta bere izaera indartu zuten aldaketak nabaritu zituen Ireberrek. Ikastolako kide guztientzako azalpenak eman zituen sexologo baten bisita izan zuten eta egoerara

egokitzeko protokoloa martxan jarri zen. Irakasleak, ikasleak eta gurasoak jakinaren gainean jarri zituzten eta Mikel zerrendetatik desagertu zen Ireberri leku egiteko.

Iraideri (Zornotza, 1989) gustatuko zitzaiokeen ikastolan babes hori sentitu izana, baina bere bizitzak oso bide ezberdinetik jo zuen.

Bera izan zitekeen Ireberren ikastolan hitzaldiak ematen dituen pertsona horietako bat, urte batzuk direlako horretan dabilela. Iraideri Erlantz izena jarri zioten Galdakaoko ospitalean jaio zenean, eta izen horrekin bizi izan zen hogeitau urte bete zituen arte. Bera, ordea, askoz ere lehenago konturatu zen Iraide zela eta ez Erlantz: “Hamabi urterekin argi nuela esango nuke. Aurretik ere banekien, baina argudiorik gabe nengoen. Gainera garai ezberdinak ziren. Aniztasunaren inguruan lantzen genuen gauza bakarra atzerritarrekiko errespetua zen. Sexuari buruz hitzik ez”.

Bigarren Hezkuntzan, unibertsitatean eta kultur etxeetan ematen ditu hitzaldiak normalean Iraidek, baina azkenaldian Lehen Hezkuntzako gaztetxoekin ere hasi da. Kasu hauetan, bi irudirekin hasten ditu bere saioak: jaioberritan ateratako argazki batekin eta lau urterekin Heidiz mozorrotuta ateratako beste batekin, bere buruaren aurkezpen modura. “Zer ikusten duzue?” da bere lehen galdera. Nahiz eta jaioberritan ateratako argazkia izan, haurrak gai dira mutila dela antzemateko eta beraz, Iraide ezin dela izan. Bigarren argazkiari buruz hitz egiterakoan aldiz, neska dela diote, eta orain bai, ume hori Iraide dela. “Eta hirurak pertsona bera garela esaten badizuet?”, galdetzen die orduan Iraidek. Zoramenan hasten da momentu horretan ikasgelan eta horri helduta hasten dira transexualitateari buruz hitz egiten.

Isilean: "Arazo bikoitza nuela uste nuen. Nola demontre izango nintzen bada emakume transexual lesbiana?" (Iraide)

Ireberren kasuan ez bezala, barruan zuen hori ezkututzen pasa ditu urte asko Iraidek. “Hasieran sexu joerarekin nahasten nintzen. Nik neskak ditut gustuko baina transexual diren neska gehienak mutilekin egoten dira, eta alderantziz. Beraz, arazo bikoitza nuela uste nuen. Nola demontre izango nintzen bada emakume transexual lesbiana?”.

Iraidek ez zuen susmo handirik sortu bere inguruan, gizarteak genero maskulinoaren estereotipoen barruan sartzen dituen ohiturak bete-betean jarraitzen zituelako: kotxeak zituen gustuko, futbolari amorratua zen eta asteazkenero

kontsolarekin jolasteko hitzordua zuen bere lehengusuarekin. Janzkera aldetik ere ez zen beste mutilengandik bereizten.

Hala ere, lagunartean emakumeen aurkako jokaera oldarkorrek izan zituela aitortu du zornotzarrak: “Sentitzen nuen barruan nuen hori nolana ezkutatu beharra neukala eta modu ergel horretan egitea iruditu zitzaidan egokien. Ohikoak ziren nesken janzeraren edota haien dantzen aurkako nire iruzkinak”.

Etxean ere komeriak izan zituen. “Nire nebak atzazalak margotzen zituen aspertzen zenean, dibertigarria iruditzen zitzaion. Nik banuen hura egiteko jakin-mina, hori eta askoz gehiago. Baina nola egingo nuen horrelakorik nik?”.

Iraidek neskalagunak eta sexu harremanak izan zituen Erlantz izenez ezaguna zenean. Ez ziren inoiz urtebete baino luzeagoak izan, azkar aspertzen baitzen beraiekin, eta alderantziz. Amak ezegonkortasun hori balizko homosexualitate batekin lotzen zuen, eta horrela jakinarazi zion alabari: “Gay ote nintzen galdetu zidaten etxean behin baino gehiagotan, mutilak gustuko banituen, alegia. Bizpahiru aldiz pasa zitzaidan burutik baietz erantzutea, gurasoek errazago onartuko zuten zerbait zela pentsatzen nuen”.

Hala eta guztiz ere, gaztaro “ona” izan zuela uste du Iraidek: “Putakeria bat ezkutuan eraman dut denbora askoan, baina ez diot gauzak egiteari utzi horregatik. Nire gorputza onartu nuen, ez nintzen eroso sentitzen baina errespetatu beharra neukan”.

Ireberren kasuan ez bezala, Iraidek ez zuen hormona inhibitzailerik hartu hogei urte bete zituen arte, bere sentitutako sexua jakitera eman zuen arte. “Badakit horrela ezaugarri maskulino gehiago garatu ditudala, baina ez naiz batere damu. Egia da ez nuela lehenago inolako tratamendurik jaso ez nintzelako nire egoera kontatzeko gai izan. Hala ere, uste dut ausartago jokatu izan banu ere, ez nukeela inolako tratamendurik hasiko heldu izan arte. Hartu ditudan erabaki guztiak nire kabuz egin izanak harrotzen nau”, dio Iraidek.

Hogei urte beteta, Aldartearekin harremanetan jartzea erabaki zuen Iraidek. Aldarte egoera ahulean dauden lesbiana, gay eta transexualen bizi-kalitatea hobetzea helburu duen Bilboko elkarte da. Bertako psikologoarekin harreman ona sortu zuen zornotzarrak, eta hark animatu zuen berak sentitzen zuen sexua familian eta lagun artean kontatzera.

Ingurukoekin zituen harreman estuek prozesua asko erraztu zutela dio Iraidek: "Harritu egin ziren, noski, baina normaltasunez tratatzen ninduten. Ohikoa zen lagunek galdetzea mutilak gustuko ote nituen orain, baina nire gustuak berdinak zirela azalduta ez zidaten berriz ere galdetu. Etxean erabateko babesa eman zidaten, aitak abokatu bat zuen lagun eta zin egin zidan edozertarako bere laguntza izango nuela. Haientzat Iraide bihurtu nintzen une hartatik aurrera".

Benetako arazoak: "Gezurretan ari nintzela esan zidan psikiatrak, ezin nintzela hain ondo sentitu, emakume bezala jantzi eta gizonak gustuko izan behar nituela" (Iraide)

Iraideren arazoak Gurutzetako ospitaleko genero-nortasunaren nahasteen unitatean sartu zenean hasi ziren, izen hori baitzuen oraindik unitate horrek bera sartu zenean, "nahasteen unitatea".

Ebaluazio psikologikoa da Iraidek igaro behar izan zuen lehen fasea. Horretarako, osasun mentaleko psikiatra batek ebaluazio klinikoa egin eta elkarrizketa bidez osasun-aurrekariak, datu biografikoak, sexu-genero nortasunaren sentimenduen agerpena eta bilakaera eta gizarte-arloko eta familiako txostenak aztertu zizkion. "Bigarren egunean, etxean betetzeko test bat bidali zidan psikiatrak. Galderak orotarikoak ziren, buruko minak ote nituen edo noizbait nire buruaz beste egiteko gogoak izan nituen. Ez nuen ezer ulertzen, bi aste eman nituen galdeketarekin gora eta behera, lagunekin eta familiarekin komentatzen. Psikopata batek erantzun beharreko testa iruditu zitzaidan", dio Iraidek.

Kostata baina itzuli zion testa psikiatrari, eta honek emandako erantzunek are gehiago mindu zuten: "Gezurretan ari nintzela esan zidan, ezin nintzela hain ondo sentitu. Hasteko, emakume bezala jantzi behar nintzela esan zidan, baina, nola jantzi behar dira emakumeak? Eta bestetik, emakume izan nahi baldin banuen, ezin nituela emakumeak gustuko izan". Eskema guztiak hautsi zizkion Iraidek psikiatrari eta horrek denbora luzez eduki zuen zornotzarra fase horretan. 2012ko abenduan hasi eta otsailera arte ez zen ebaluazio endokrinologikora igaro. "Nire psikiatra titularrak lan baja hartu zuen haurdunaldiagatik eta ordezeko psikiatra etorri zen. Txostenak irakurri eta berehala galdetu zidan ea zergatik ez nintzen jada hurrengo fasean ari: unibertsitatean nire kasuari buruzko hitzaldi bat emanda nuen ordurako, etxean Iraide deitzen zidaten, baita

entrenatzen nuen futbol taldeko umeek ere. Iraide nintzen mundu guztiarentzat, baina nire buruan nahasmena ikusten zuen oraindik psikiatrak", azaldu du Iraidek.

Endokrinologia unitatean sartu bezain laster, azterketa fisiko osoa egin zioten, bularretako eta genitaletako miaketa, miaketa abdominala... Baita biokimika orokorreko azterketa analitikoak ere. "Egun batean, hamar tutu baino gehiago bete zituzten nire odolez. Zientziarako animalia arraro bat bezala sentitzen nintzen, baina ulertu beharra neukan nire osasun segurtasunagatik egiten zizkidatela proba horiek guztiak", aitortu du Iraidek. Sexu biologikoaren bigarren mailako sexu-bereizgarriak, bularrak, ilea eta ahots tinbrea besteak beste, murrizteko eta sentitutako sexuari dagozkionak areagotzeko estrogenoak hartzen hasi zen zornotzarra. Ebakuntza egin baino lehen igaro beharreko azken tratamendu luzea zen hura.

Prozesu horretan zegoen bitartean, noizbehinka sexu-bizitzari buruzko galderak egiten zizkieten: harremanetarako gogoz ote zegoen edo ez, masturbazio ohiturak aldatu ote zituen... "Galdera hauek edonor deseroso sentiarazteko modukoak ziren, baina egiten ari nintzenaz hain seguru sentitzen nintzenez gero, lotsa guztia galdu eta mota horretako galderak normaltasun osoz erantzuten nituen", dio Iraidek.

Kirurgia da bigarren mailako sexu-karakterek eta genitalak aldatzeko pertsona transexualek ematen duten azken urratsa. Norberaren sexu-nortasunarekin koherentzia maila handiagoa lortzen ohi da ebakuntzaren ondoren. Iraidek ordea, ez zuen bestelako argudiorik behar emakumea zela ondo ulertzeko. Bere gorputzarekin erabat gustura egoteko azken urrats modura ulertzen zuen berak kirurgia.

Ebakuntza baino lehen, beste hainbat hitzordu izan zituen psikiatrarekin. Kirurgiaren arriskuetaiko bat genitalen zonaldean sentsibilitatea galtzea zela azaldu zion honek: "Emakume transexualek sexu harremanetarako galtzen dugun sentsibilitatea gizonei ematen genien plazer erantsiarekin konpentsatzen dela esan zidan psikiatrak. Bi urte eta erdi zeraman nirekin eta oraindik ere emakume transexual lesbiana nintzela ukatzen zidan", adierazi du Iraidek.

Zorionez, zirujauarekin izan zuen harremana "eredugarria" izan zela dio zornotzarrak: "Oso profesionala, bai ebakuntza gelan eta bai haren aurretik zein ondoren pertsona bezala tratatu ninduelako". Bularren eta genitalen itxura estetikoak eta funtzionala hobetzeko ohikoa izaten da bigarren ebakuntza bat egitea, baina ez zen hori

Iraideren kasua izan. Ebakuntza osteko zaintza ordea, luzea izan zela dio: "Ebakuntza gelan zazpi ordu luze igaro ondoren, irten nintzenean buruan nuen gauza bakarra nire gorputza ispilu aurrean ikustea zen. Zirujauak ordea, bost egunez ohean erabateko atsedena hartu behar nuela esan zidan eta genitaletan pakete moduko bat jarri zidaten guztia ondo senda zedin. Luze egin zitzaidan oso".

Baginaren zuloa ez ixteko, egunean bi aldiz egiten zituen dilatazio ariketak Iraidek. Erizainen laguntzarekin ospitalean egon bitartean eta bakarrik gero etxean. Oraindik ere ariketa horiek egin behar dituela azaldu du zornotzarrak: "Ebakuntzak irekitako zuloak ixteko joera du eta beraz, oraindik ere nabil dilatazio ariketekin, bizitza osorako gauza bat da. Beste aukera bat sexu harremanak maiztasunez edukitzea litzateke. Nik kontsolatzaileak erabiltzen ditut sarri".

Erregistro zibilean: "Tramite simple batzuk egitera nindoala uste nuen, baina guztiz umilduta atera nintzen bertatik" (Iraide)

2014ko urrian izan zen hori. Baina oraindik bazuen beste egiteko garrantzitsu bat: nortasun agirian sexu zein izen aldaketa egitea. Abenduan Durangoko bake-epaitegira joan zen horretarako: "Eskaera egin eta epaileak erantzun zidan lehen gauza izan zen egun hartan ez ninduela hartuko, tramiteei buruz ideiarik ez nuelako".

2007an Espainiako Gorteen onartutako Genero-Nortasun Legeak bi baldintza betetzera mugatzen ditu erregistro zibileko izen eta sexu aldatzea egin nahi dituzten pertsonak: alde batetik, eskatzaileak medikuak edo psikiatrak egindako aldeko txostena edukitzea, egotzitako sexuarekin desadostasun irmo eta iraunkorra duela eta nortasun desorekarik ez duela esaten duena, eta bestetik, gutxienez bi urtez sentitutako sexura aldatzeko tratamendua egin izana egiaztatzen duen agiria aurkeztea. Agiri horietako bat falta ezean, auzitegiko mediku batek eskatzailea ikuskatu beharko luke. Iraidek aurreko biak eta hirugarren bat ere aurkeztu zuen, sexu aldaketaren ebakuntzarena alegia, baina "legea existituko ez balitz bezala" egin zuten berarekin.

"Horrekin nahikoa ez, eta auzitegiko medikuak tratamendua hasi aurretik eta ondoren izandako bikotekideekin edukitako harremanei eta horietan betetzen nuen rolari buruzko galderak egin zizkidan. Ea nolakoak diren sexu harremanak; gizon bezala edo emakume bezala jarduten dudan; nire bikotekidearen emetasuna nolakoa den; janzkerari buruz ere, gizonen arreta pizteko janzten naizen edo zintzoa naizen... Igarotako

guztiaren ondoren, tramite simple batzuk egitera nindoala uste nuen, baina guztiz umilduta atera nintzen bertatik", azaldu du Iraidek. Abenduan hasi eta uztailean argitaratu zuen autoa epaileak. Ordutik, salbuespenik gabe, edozein lekutan dagoela bere izena erabil dezake Iraidek.

2014ko urriaren 13a: betirako tatuajea.

Prozesua amaituta, bere bizitzan gertatutako aldaketa betirako gogoratuko zuen tatuajea egitea erabaki zuen Iraidek. Data bat izango zela argi zeukan, zalantzak zituen ordea ebakuntza egunekoa ala erregistro zibilean sexua eta izena behin betiko aldatu zituen egunekoa izango zen. "Gogoan dut nortasun agiria eman zidaten lehen eguna. Hondartzara joan nintzen guraso eta lagunekin, egun ederra pasa genuen elkarrekin eta ez zidaten momentu batean ere agiria eskatu. Berdin zion, inguruan nituen pertsona guztiek emakume ikusten ninduten", dio Iraidek.

"2014ko urriak 13" jartzen du Iraideren eskumuturrean, gizonezko genitalak kendu eta bagina berreraiki zioten eguna.

Zuzenbide ikasketak bukatzeaz, unibertsitatea utziko duten ikasle gehienak bezala dago bera, "etorkizunak ekarriko duenaren esperoan". Kotxeak gustuko ditu oraindik ere, duela gutxi kotxe berria erosi du nahi izan dituen bitxikeria guztiekin. Astebururo San Mamesen Athletic eta Bilbao Basket Miribillan animatzen ditu eta bere taldeak gola sartzen duen bakoitzean zoroen antzera hesira igotzen jarraitzen du. Gona baldin badarama, kontu gehiagorekin igotzen da, baina igotzen da.

Iraide pertsona bera da, baina orain, segurtasun osoz esan dezake gustura bizi dela.

Sexuaren nolakotasunak: "Daukaguna gauza bat da, genitalak. Beste gauza bat da egiten duguna, eta beste gauza bat da gu garena" (Aingeru Mayor, sexologoa)

Jende askorentzat Iraide mutil izatetik neska izatera igarotzeak bere izaeraren aldaketa eskatzen zuen, izan ere, "gizarteak, orokorrean, ezer gutxi daki sexuari buruz", dio Aingeru Mayorrek, Chrysallis elkarteko presidente eta sexologoa.

Sexua izakia biologikoki gizon edo emakume bezala definitzeko balio duen terminoa dela gogoratu du Mayorrek, gizakiak bereizten dituzten bi sexu ezaugarrietako bakoitza hain zuzen: gizona eta emakumea. Nolanahi ere, edozein lekuan dagoela, gizakiak emakumeak eta gizonak ezberdintzeko ohitura duela azpimarratu du

sexologoak: "Nahigabe egiten dugun zerbait da". Subjektuak sailkatzeko joera naturala da hori. "Ikusten duguna baino ez da, erratuta egon gaitezke. Asma dezakegu edo ez", Zenbat aldiz gertatu zaigu telefonoz emakume batekin hizketan ari garela pentsatzea eta gerora, pertsona hori aurrez aurre ikusterakoan, gizona dela konturatzea?".

"Gizon edo emakume garela argi izaten dugu. Zergatia galdetzerakoan, 'zakila dudalako' erantzungo dute gizon gehienek. Zakila, ondo jarrita gainera. Kontzeptuak dira agian hain ondo jarrita ez ditugunak. Eta... ebakuntza eginez gero, zakila kentzen badizugu? Gizon izaten jarraituko duzu?", galdetu du sexologoak. "Baliteke tabernan, lagunen artean, ahulagoa sentitzea gizarteak markatzen duen presioaren ondorioz, baina, egiatan, gizon zarela sentitzen jarraituko duzu".

Mayorrek argi du: "Daukaguna gauza bat da, genitalak. Beste gauza bat da egiten duguna, eta beste gauza bat da gu garena". Gizon edo emakume izan gaitezke, baina sexologoak azaltzen duenez, hori ez da gizakia jaio den momentutik automatikoki sortzen den zerbait: "Gizon eta emakumeak etengabe eraikitzen ari garen subjektuak gara. Jaio garen unetik eta hiltzen garen arte, gizon eta emakume bihurtzen ari gara, momentu oro. Eta errealitatea ulertzeko, gure nortasuna horrela ulertu beharra daukagu".

Sexu-akzio prozesua: "Gizon eta emakumeak sexu bietako ezaugarriak uztartuz eraikitzen gara" (Aingeru Mayor, sexologoa)

Hobeki ulertzeko, sexu-akzio prozesua azaldu du Mayorrek: "Gizon eta emakumeak sexu bietako ezaugarriak uztartuz eraikitzen gara. Guztiok ditugu maskulinoak eta femeninoak diren ezaugarriak, eta hauek guztiak elkar gurutzatuz gure biografia eratzen dugu. Dibertsitatea sortzen du honek, besteengandik ezberdintzea ahalbidetzen digun dibertsitatea".

Baina zer da ezaugarri maskulino edo femenino bat? Ezaugarri batzuk maskulinoagoak edo femeninoagoak direla esaten da estatistikoki nabarmenagoak direlako gizonetan edo emakumeetan. Begien koloreak, kasu, ez du lotura zuzenik emakume edo gizon izatearekin. Bularren tamainak, ordea, bai, bular handiak sarriago ematen direlako emakumeetan. Baina bular gutxi duten emakumeak daude, eta bular handiak dituzten gizonak ere. Gizarteak, baina, sexu batean sarriago ematen diren ezaugarriak sexu horren estereotipo eta arau bihurtzen ditu: "Ezaugarri bat emakumeen

artean gehiago emateak ez du esan nahi emakumeen ezaugarri denik soilik, eta alderantziz", azaldu Mayorrek.

Hala ere, biologia arrazoiak medio, zailagoa da ezaugarri jakin batzuk sexu bietan aurkitzea. Berdinuk, sexu- eta genero-aniztasunari buruz informazioa eta arreta emateko zerbitzuak, hiru maila nagusitan sailkatzen ditu karaktere hauek. Lehen mailako ezaugarriak, kromosomak adibidez: gizon gehienetan XY eta emakumeetan XX kromosoma dago, eta salbuespenak salbuespen, araua ia kasu guztietan errepikatzen da. Bigarren mailakoak gorputzeko ile dentsitatea edo ahots tinbrea lirateke: gorputzean zehar dagoen ile dentsitatea handiagoa izaten da gizonetan eta ahots tinbrea finagoa emakumeetan. Maila honetan, ordea, ohikoagoa da ezaugarri horiek sexu bietan aurkitzea, ahots fina duen gizona eta gorputzean ile dentsitate handia duen emakumea, alegia. Eta hirugarren mailan, gizarteak eraikitako ezaugarriak leudeke: ile laburra eramatea adibidez ohikoagoa da gizonen sexuan emakumeetan baino, maskulinoagoa da. Arropekin gauza bera, gona femeninoagoa da. Ezaugarri bat sexu batean bestean baino gehiago ematen denean, maskulino edo femenino bezala ezagutuko da.

Hitzaldi-moralak: "Errealitatea ulertzen ez duten hitzaldi moralez inguratuta bizi gara, sexistak dira eta genero normatiboetan hezten dute" (Aingeru Mayor, sexologoa)

"Aurpegian ilea duten emakumeak daude adibidez, eta asko sufritzen dute, gizarteak ez duelako emakumeetan ezaugarri hori onartzen. Printzipioz arazorik sortu behar ez lukeen faktore natural batek bizitza 'izorratzen' die emakume askori. Generoa ezin daiteke inolaz ere itxurarekin lotu", azaldu du Mayorrek. Sexologoaren esanetan, ez dago funtsezko ezaugarririk pertsona bat emakumea edo gizona dela esateko, kasu guztietan daudelako salbuespenak: "Sexu bietakoak diren ezaugarriak ditugu guztiok. Nire buruko ilea adibidez nahiko maskulinoa da, baina bularrean ez dut ilerik, beraz femeninoagoa da. Intersexualitatea deitzen zaio horri eta kontzeptu hau barneratzean soilik hasiko gara errealitatea ulertzen".

Gure gizarteak, ordea, gizonari maskulino izatea eta emakumeari femenino izatea inposatzen diela deritzo Mayorrek: "Emakumea bazara eta bibotea baduzu, kendu beharra daukazu, hori maskulinoa delako. Eta gizonak gustuko dituen gizona bazara, hori femeninoa denez, emakumeak gustatu behar zaizkizu. Errealitatea ulertzen ez duten hitzaldi moralak dira hauek guztiak, sexistak eta genero normatiboetan hezten dutenak.

Sufrimendu handia sortzen dute diskurtso hauek, pertsonak ezin direlako benetan diren moduan bizi".

Naturak ez du berdintasunaz ulertzen, dibertsitateaz baizik: "Naturak dibertsitatea sortzen du etengabe. Gu geu gara ezaugarriak sexu baten edo bestearen bereizgarri egin eta ohikoa dena izan behar duena bihurtzen dugunak. Estatistikotasunari lotutako emaitzak arau bihurtzen ditugu. Are gehiago, gure seme-alabak jaiotzerakoan, Mendebaldeko kulturako gizon-emakume heterosexuala izatea espero dugu gurasook. Hori egun zaharkituta dago guztiz", dio sexologoak.

Transexualitatea ulertu haurrak laguntzeko: "Gure gizartean, tamalez, jaiotzerakoan ezartzen diguten hori garela pentsatzen jarraitzen dugu" (Joserra Landa, ISSUE sexologia institutuko psikologoa)

Sexuaren nolakotasunen nondik norakoak buruan antolatuta, haur bat jaiotzerakoan bere sexuari dagokion iragarpen bat baino ezin dugula egin dio Joserra Landa psikologoak, ISSUE sexologia institutuko kideak. "Gure gizartean, tamalez, jaiotzerakoan ezartzen diguten hori garela pentsatzen jarraitzen dugu", dio Landak. Jaiotzetik aurrera, umeak ezarri zaion sexuaren arabera trataera jasoko duela eta sexu horri lotutako itxaropenak eraikiko dituela azaldu du psikologoak.

Bi alaba ditu Mayorrek eta horietako bati, Alairi (2009), bietako gazteenari, jaiotakoan mutila zela esan zioten. Bera, ordea, neska da. "Nire alaba txikiak bi urte zituenean eta hitz egiten hasi zenean, guk momentuan ulertu ez genuen zerbait esan zigun: 'Apu ez, apa'. 'Guapo ez, guapa', esan nahi zuen", azaldu du bere aitak.

Bere buruari buruz hitz egiterakoan femeninoa erabiltzen zuen Alairi. Ahizpa nagusiaren jantziak jartzen zituen haurrak, pelikulak ikusten zituenean emakumezko pertsonaiekin identifikatzen zen gehiago... Gurasoek pentsatu zuten orduan bere inguruak sortutako zerbait izango zela. "Bere ahizpa, ama, lehengusinak ... Alairi ez du lehengusurik. Ni nintzen gertuko gizonezko erreferente bakarra eta oso denbora gutxi igaro nezakeen berarekin... Batek baino gehiagok esan zigun beharbada erreferente maskulino gehiago behar zituela", aitortu du Mayorrek.

"Begira ze guapa nagoen", esaten zuen Alairi. "Bai bai, ze guapo zauden", erantzun gurasoek. Ahizpa nagusia mozorrotzen hasi zenean eta etxera printzesa mozorroak ekarri zituenean, amak pentsatu zuen ideia ona zela printze eta super-heroi

mozorroak ere erostea biek haien istorioekin jolas zezaten. Etxean sorpresa hartu zuten ordea, mozerro horiek ahizpa nagusiak soilik erabiltzen zituela ikusi zutenean. “Alaik ez zituen ukitu ere egin. Ez zitzaizkion interesatzen”, dio Mayorrek.

Bada, panpinekin jolasten diren mutil guztiak ez dira transexualak izango, ez eta baloiaren atzetik dabiltzan neskak. “Mutil eta transexual ia gehienek ordea, badute aurrekari hori. Ez da horiekin jolastu nahi dutelako bakarrik, baizik eta beren inguruko neska-mutilek egiten dutena ukatzen dutelako, nortasun aldarrikapen gisa”, azaldu du Landa psikologoak.

Hiru urte zituela, ahizparen soineko batekin kalera irtengo zela esan zien gurasoei Alaik. “Eztabaida izan genuen emazteak eta biok. Biotako inork ez zuen nahi Alairen nahia zapaltzea, baina, zelan irtengo ginen kalera soineko batekin jantzitako mutil batekin? Gogorrena jendearen begiradak dira, baita esaten dizutena ere. Eta isiluneak”, azaldu du Alairen aitak.

Negua eta hotza heldu zirenean, inork ez zuela soinekorik jantziko adostu zuten Alairen etxean. Baina udaberria bueltatu zen, eguraldi ona, eta Alairen desioa ere. Oraingoan gainera, ez zen soinekoa eta diadema janztea bakarrik, lagunei “ni neska naiz” esaten zien Alaik.

“Parkeko umeak niregana etortzen ziren eta galdetzen zidaten: ‘Zer da ba, Alai?’ Eta nik zera erantzuten nien: ‘Berari galdetu, neska dela esaten badu, izango da...’. Izango da... Orain pentsatzen dut eta kristoren amorrua sentitzen dut. Traizioa iruditzen zait momentu horretan hori erantzun izana, erantzun horren atzean ukapena zegoelako. Jendeak uste du kasu hauetan haurrari nahi duen hori azaleratzen utzi behar zaiola, besterik gabe. Eta ez da hori bakarrik, horrekin ez da nahikoa. Alabak bere burua deskribatzen duen moduan ikusi beharra daukazu”, argitu du Mayorrek.

Errealitatearekin topo: “Transexualitatea gure buruan imajina genezakeen zerbait zen, baina ez gure larrutan bizitzeko beste” (Aingeru Mayor, Alairen aita)

Kasurik egiten ez badiozu, baliteke unerren batean umeak sentimendu horiek azaleratzeari uztea. Genero-nortasuna zazpi urtera arte aldakorra den zerbait dela defendatzen duten oinarri zientifikorik gabeko teoria asko irakur daiteke, nahi izanez gero. Estatu espainiarreko genero nortasun unitateetako psikologo profesionalak, adibidez, pubertarora arte luzatzen dute aldakortasun epe hori. Alairen familiak ere

itxarotea erabaki zuen. Baina itxaroten zuten bitartean egunero ikusi behar zuten Alai negarrez iratzartzen. “Guk jartzen genizkion arropak ez zioten uzten bera benetan zena lasaitasunez sentitzen. Gure partetik bere nortasunarekiko ukapena jasotzen zuen behin eta berriz, nahiz eta neska bezala identifikatzen uzten genion”.

Gogorra egin zitzaion oso Mayorri eta emazteari egoera onartzea: "Gure buruan errealitatean gerta zitekeen zerbait zen hura, imajina genezakeena, baina ez gure larrutan bizitzeko beste. Alairen etorkizunak kezkatzen gintuen eta horrek begiak estaltzen zizkigun bere benetako sentimenduen aurrean” .

Nahiz eta familiek beren haurrarentzat onena nahi izan, Landa psikologoak badaki guztiak ez daudela nahikoa prestatuta prozesu hori behar den moduan onartzeko: “Atseginak izan behar gara beraiekin, pertsona guztiak ez dute dibertsitatea ulertzeko gaitasun bera. Haiei ere lagundu behar diegu, apurka-apurka, aurreiritziak ezaba ditzaten”.

Ordea, errotik ezabatu beharra dagoen zenbait jarrera dagoela dio psikologoak: “Genitalen aitzakia erabiltzea ume bati sentitzen duen sexukoa ez dela esateko oso larria da. Ume horrek bere genitalen eta gorputzaren aurkako borroka hasiko du, bere begiek ikusten dutena berak sentitzen duenaren kontrakoa izango delako. Haien genitalak anputatu nahi eta egin dituzten umeen kasuak ezagutzen dira”, dio Landak kezkaturik. *American Foundation for Suicide Prevention*ek suizidioaren inguruan Estatu Batuetan egindako azken ikerketaren arabera (2014), pertsona transexualen %41a bere buruaz beste egiten saiatu da bizitzan noizbait. Datu "harrigarria" Landaren esanetan, gainontzeko pertsonetan % 1,6a bakarrik saiatu baita noizbait bere buruaz beste egiten.

Etxean biluzik egoteko ohitura dutela azaldu du Mayorrek. Dutzatik irtetea, ohean, bero handia egiten duenean... Alai ere horrela egiten du. Udan hondartza nudistetara joaten dira, eta guztiak biluzten dira. Guztiak, Alai izan ezik: “Besteek genitalak ikusten badizkiote mutila dela pentsatuko dute eta beraz, hobe ez erakustea. Horrek min egiten dit, nire alabak bere gorputza ezkutatu behar du besteek mutila dela esan ez dezaten”, dio Mayorrek.

Landaren esanetan, sufrimendu horren aurrean familia batzuek haurraren adina aprobetxatu eta buruan sentitzen duen sexuaren ideia zuzentzen saiatzen dira: “Jakin dezatela ez dutela inoiz lortuko. Nortasuna barrutik irteten den zerbait da, ezin da

erabaki, aukeratu edo desiratu... Zaren zerbait da. Ez dute ezer zuzenduko eta sufrimendua areagotuko dute”.

Askatasun haize berriak: "Orain berak nahi duenean soinekoak janzen ditu eta nahi duenean txandala. Futbolera ere jolasten du noizean behin. Lehen pentsaezina zen hori" (Aingeru Mayor, Alairen aita)

Alaik zortzi urte ditu egun, eta izandako zalantzen eta gorabehera guztien ondoren, bere aitak argi du zer ondorio atera duen: “Alai neska da, ez dago zalantzarik. Hitz egiteko gaitasuna duenetik horrela deskribatu du bere burua. Guk hasieran onartzen ez genuenez gauzak asmatu ditu, baina neska sentitu da beti”. Mayorrek nahiago du transexual hitza ez erabiltzea, eta alabak erabiltzen duen adierazpen bera erabiltzea. Neska, alegia: “Alai ez da transexuala berak ez duelako inoiz hitz hori aipatu, neska dela esan du beti. Adindua denean borrokatuko da nortasun transexual bategatik. Orain neska izango da gure hitzetan, besterik gabe”.

Alairen gurasoek etxean, eskolan eta lagunartean alaba ikusteko era aldaketa hori azaldu zutenean, lasaitasun eta askatasun haize berriak sumatu zituzten Alairengan: “Lehen maskulinitasun zantzua izategatik ukatzen zituen arropak jartzen hasi da berriro. Orain berak nahi duenean soinekoak janzen ditu eta nahi duenean txandala. Futbolean ere aritzen noizean behin. Lehen pentsaezina zen hori”.

Gogorra egiten zaio Mayorri Alai medikatu egingo dela pentsatzeak, berak hala nahi izanez gero, hormonak hartuko dituela bizitza osoan zehar. Oraindik ez dago ebidentzia zientifikorik haurtzarotik hormona inhibitzaileak hartu dituzten umeek zer nolako zahartzaro mota izango duten jakiteko. Medikuek eta espezialistek, beren aldetik, diote ez kezkatzeko tarte nahikoarekin egiten dutela lan, baina ume hauek izan beharko dira benetan balizko ondorioak azaleratuko dituztenak. Hala ere, Mayorrek nahiago du, alaba sufritzen ikusi beharrean edo erabaki larriagorik hartu baino lehen, Alai zoriontsu ikustea orain: “Aita bezala egin dezakedan gutxienekoa da. Onartu eta laguntzea, bere ondoan egotea”.

Mundua zuri-beltza ez denaren adierazle dira Ireber, Iraide eta Alai, eta kolore aniztasuna da, hain zuzen, mundu hau eder egiten duena. Zorionez, gure artean pertsona hauekiko dagoen onespenez geroz eta handiagoa da, eta transfobia bezalako gaitzak ukapen garrantzitsua izaten ari dira jendartean. Inposatutako sexua sentitzen ez duten

haurrek errealitateak exijitzen duen benetako dibertsitatean agertzeko aukera gehiago daukate orain. Ez dute zertan gehiago ezkutatu behar.

Oztopoak ordea, ezabatzeke daude oraindik: norberaren nortasunak ez luke izan behar psikologo batek identifikatu beharreko nahasmena; nortasun agiriak ez luke heldu izan arte ezarritako sexua adierazi behar bere jabeak horrela sentitzen ez badu; eta hezkuntzak ez luke egin behar sexu eta genero aniztasuna existituko ez balira bezala.

Traba hauek gainditzeko lanean jarraituko dute Ireberrek, Iraidek, Alaik eta beren familiek, egunen batean, jaiotzen den inork horrelakorik berriro igaro behar ez dezan. Besteok, bitartean, eman dezakegun guztia eman beharra daukagu haiek direna izateko aukera izan dezaten.

1. Zatidura

Glosarioa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Ares Piñeiro Berdindu zerbitzuko arduradun zein LGTBen Estatuko Federazioaren Transexualitate Arloaren koordinatzaileak, Aingeru Mayor Crhysallis Euskal Herria elkarteko presidentek eta Nerea Garcia elkarteko bereko kideak osatutako lantaldeak adostu dituen zenbait kontzeptuen definizioak ageri dira jarraian:

SEXUA: Gizakiak bereizten dituzten bi sexu bereizgarrietako bakoitza: gizona ala emakumea.

SEXU-NORTASUNA: Sexu bateko kide izatearen kontzientzia propioa.

GENEROA: Gizartearen eta kulturaren arloetan sexu batekin edo bestearekin lotzen diren portaera, jarrera, adierazpen eta/edo balioen multzoa.

SEXU-ORIENTAZIOA: Pertsona batek sentitzen duen sexu-erakarpena; pertsona hori homosexuala izan daiteke (sexu berekoek erakartzen badute); heterosexuala (beste sexukoek erakartzen badute) edo bisexuala (bi sexu etako pertsonak erakartzen badute).

MASKULINOA: Gizonen bereizgarria. Alegia, alderatuta, emakume baino gizon askoz ere gehiagok betetzen duela ezaugarri hori.

FEMENINOA: Emakumeen bereizgarria. Alegia, alderatuta, gizon baino emakume askoz ere gehiagok betetzen duela ezaugarri hori.

GENERO-PORTAERA EZ-NORMATIBOA: Beste sexuarekin lotzen diren eta gizartearen eta kulturaren arloko itxaropen eta arauekin bat ez datozen portaerak.

SENTITZEN DEN SEXUA / SEXU PSIKOLOGIKOA: Norberak bere burua identifikatzen duela sentitzen duen sexua. Gainerakoek sexu horren arabera identifikatu eta tratatu beharko dute.

TRANSEXUALITATEA: Pertsona batek bere burua identifikatzen duela sentitzen duen sexua (sentitzen duen sexua edo psikologikoa) jaiotzean genitalen arabera esleitutako sexuarekin bat ez datorrenean gertatzen den bizitzako egoera edo izaera.

TRANSGENEROA: Izen bereko egoera adierazten duen adjektiboa; bere burua bi sexuekin –aldi berean– identifikatzen dutenei edo ez batarekin, ez bestarekin identifikatzen ez dutenei aplikatzen zaie.

TRANSFOBIA: Transexual diren edo ematen duten pertsonetikiko edo irudimenean transexualekin lotzen diren pertsonetikiko beldur eta gaitzespena.

2. Zatidura

Jon Bermeosolo, Ireberren irakaslea: "Ireberrekin konturatu gara guztiok dugula oraindik ikasteko zerbait "

Ireberren irakaslea da Jon Bermeosolo, Errenteriako Orereta Ikastolan. Ireber bezalako ikasle bat edukitzeak inguruan ondorio aberasgarriak izan dituela dio Bermeosolok, bai bera profesional eta pertsona moduan hazteko eta bai Ireberren ikaskideek errealitatearen dibertsitatea hobeki ulertzeko. Oraindik ere asko duela ikasteko aitortu du errenteriarrek, baina ikastolan martxan jarritako protokoloak emaitza positiboak eman dituela azaldu du. Ireberrek, beste ikaskideek bezala, egunerokotasun arrunta bizi duela dio bere irakasleak.

"Hezkuntzaren eginkizun garrantzitsuenetariko bat da ikasle guztiak gizartean sozializatzen jakin dezaten, baita honek eskaintzen duen aniztasuna ulertzen eta errespetatzen laguntzea. Bada, Ireberrekin konturatu gara guztiok dugula oraindik ikasteko zerbait ", azaldu du Bermeosolok. "Transexualitateari buruz zerbait entzunda banuen ere, egun batetik bestera nire errealitatearen parte bihurtu da. Nire eskolak moldatu behar izan ditut, baita nire burua ere", aitortu du errenteriarrek.

Lehen urratsa Ireberren familiak jakinarazi zion izena erabiltzea izan zen, bai eskolako jardueretan eta bai eskolaz kanpokoetan. "Ikasgelara sartu bezain laster, zerrenda pasatzeko ohitura dut. Izen bakoitza irakurtzerakoan, nola dauden galdetzen diet eta aurreko egunean zer egin duten komentatzen dugu denon artean. Egun batetik bestera, zerrendatik Mikel desagertu eta Ireber agertu zen. Elkarrizketa ohi bezala egin genuen Ireberrekin. Ikasle batek eskua altxatu eta Mikelekin zer gertatzen zen galdetu zuen. 'Mikelekin, ez, Ireberrekin' erantzun nuen, eta ez zela ezer arraroa gertatzen. Ikasgelan isiltasun osoa zegoen", azaldu du Bermeosolok.

Ondoren orri zuri bat banatu zion irakasleak ikasle bakoitzari, eta bertan haien deskribapena egiteko eskatu zien. "Nor zara? Zelan sentitzen zara? Zer gustatzen zaizu egitea? Zerk bereizten zaitu?", izan ziren irakasleak luzatu zizkien galderak. Azterketa bat balitz bezala, mahaiak banan-banan jarrita erantzun zituzten.

"Denon aurrean irakurri genituen ondoren. Erantzun batzuk antzekoak ziren, baina orokorrean bide ezberdinetatik heldu zituzten galderak. Batzuek lotsatiak zirela esaten zuten, beste batzuek barregarriak, bakarrik egotea gustuko zuena ere bazegoen.

'Ezberdina' erantzun zuten bakan batzuek. Ama besarkatzea eta gurasoekin egotea, aitarekin abestea, antzezlanak egitea... Aizkoran aritzea gustuko duten neska bi zeuden, eta ballet dantzaria izan nahi zuen mutilik ere. Sukaldaria beste batzuek, txoferra, suhiltzailea... Gutako inor ez dela berdina ondorioztatu genuen", azaldu du Bermeosolak.

Irakasleak beharrezkoa ikusten du erabat irakaskuntza plangintzaren barruan sexu eta genero dibertsitateari buruzko edukiak lehenbailehen lantzen hastea: "Haurrek jakin beharra dute ez direla bakarrik zakila duten mutilak eta bagina duten neskak existitzen. Liburuetan ez da ezer aipatzen eta duela gutxira arte legetan ere ez. Errealitatea ezagutzen badute, gehiago errespetatuko dute", dio errenteriarrek.

"Triste da bakan batzuek dibertsitatearen ezagutza doktrinamendurekin lotzea. Transexualitateari buruz jardutea munduan existitzen denari buruz hitz egitea da, besterik gabe", esan du Ireberren irakasleak.

Hurrengo egun eta asteetan zuzendariaren, sexologoen eta esperientziak kontatzera joandako jendearen bisita izan zuten. Ez bakarrik transexualitatea lantzeko helburuarekin: sexua, sexu-nortasuna, generoa, maskulinitatea, feminitatea, intersexualitatea eta homofobia bezalako kontzeptuak jorratu dituzte, eta ez soilik Ireberren ikasgelan. Hitzaldi batzuk klasean bertan egin dira, eta beste batzuk, areto nagusian. Azken horietara, txandaka, beste ikasgeletako ikasle eta irakasleak eta ikastolako langileak joan dira. "Txarto egiten ari gara zerbait langileon artean ere ez badakigu kontzeptu hauetako batzuk bereizten", aitortu du irakasleak.

Ireberren ikastolako dokumentazio administratibo guztia aldatu dute: gela-zerrendak, argazki buletinak, espedienteak... "Ireber neskekin ibili da beti eta berdin jarraitzen du horrek, lagunak lagun izaten jarraitzen du. Bere jarrerak, ordea, hoberrantz egin du egoera normalizatu egin denean", azaldu du Bermeosolak.

Irakasleak dio sexuen arabera berezitatea egon daitezkeen lekuak berak nahi dituen bezala erabiltzeko aukera eman zaiola Ireberri, segurtasuna eta intimitatea bermatzeko helburuarekin, eta berarekin adostu direla espazio horiek erabiltzeko baldintzak. Nahikari Yubero Lauaxeta Ikastolako (Zornotza) proiektu arduraduna da, eta oraindik transexualitate kasurik izan ez badute ere, ikastetxearen instalazioak moldatzen hasiak direla ere kontatu du: "Bi eta hamar urte arteko ikasleentzako nesken eta mutilen komunek bat egingo dute datorren urtetik aurrera. Adin horretatik aurrera,

bi espazio egongo dira, baina identifikatu gabe. Hau da, ikasleek erabakiko dute nola banatuko dituzten. Baliteke sexuka banatzea, edo ez, baina haien joerek erabakiko dute hori".

Yuberok azaldu duenez, adin horretatik aurrera espazio komunak erabiltzeak aurrerantzean ere ikasleek gauza bera egiteko aukera gehiago sortzen ditu. Hala ere, argi du ikasleek gizarteko beste hainbat esparrutan banaketa hori ikusiko dutela, eta beraz, kanpoko eraginez, identifikatu gabeko komunen aukera eskaintzerakoan sexu bereizketa egiteko aukera handia dela: "Hor dugu erronka, helburua da edozelako edukiak eta balioak irakasterakoan, kanpoan ikusten dituzten presio horiek identifikatzea eta autokritika egitea".

3. Zatidura

Andaluziako lege-eredu berritzailea: generoaren autodeterminazioa oinarritzko eskubide gisa.

Transexualen Eskubideen Aitorpenerako Andaluziako Legebiltzarrak 2014an onartutako legea mugarri da Europa mailan. Izan ere, lege batek estreinakoz jaso du Estatuan transexualen sexu eraldaketa prozesua aurrera eraman ahal izateko psikiatriak ez duela esku hartu behar.

Legearen mamia Andaluziako Transexualen Elkarteak garatu zuen batzorde politiko eta beste kolektibo batzuekin elkarlanean, eta legebiltzarreko alderdi guztiek aho batez onartu zuten. Legearen helburu nagusiak, transexualitatea gaitz bezala tratatzeari uztea eta pertsona hauek generoaren autodeterminazio eskubide osoa izatea dira, hirugarrenen onespeneraren beharrik gabe. Ordura arte, Suedia zen txosten klinikoak sentitutako sexuaren aldaketa prozesutik ezabatu zituen Europako herrialde bakarra.

“Genero-nahasmena dutela esaten duten txostenik egin gabe sentitzen duten sexura aldatzeko osasun arreta osoa jasotzeko eskubidea dute orain Andaluziako transexualek: hormonon tratamendua, espezialisten arreta eta ebakuntza, alegia. Hori gauza itzela da, batez ere, umeen garapen orekatu eta osasungarrirako”, dio Leire Imazek, EHUko Zuzenbide Zibileko irakasle eta Berdintasunerako zuzendariak.

Euskadin, 2015eko abenduan legebiltzarrean onartu zen transexualen dokumentazio administratiboari buruzko lege dekretua. Lege dekretu honetan, Espainiako Konstituzioko 7. artikulua* transexualentzako agintzen duen sexua berriz esleitzeko prozesuak iraun bitartean, pertsona hauek sentitzen duten sexuaren araberrako dokumentazio administratibo egokia izateko aukera jasotzen da, eguneroko bizimoduaren jarduna hobea izan dezaten laguntzeko eta sufrimendu edo diskriminazio egoera saihesteko helburuarekin.

“Adingabeek ez dute heldu izan arte itxaron beharko eskolan, polikiroldegian, liburutegian ... sentitzen duten sexu eta izenarekin tratatuak izateko”, azaldu du Imazek. “Hala ere, Andaluziara begira ari gara lanean, izan ere, dokumentazio hori eskuratzeko psikiatren txostena behar da oraindik”, dio irakasleak.

Edukiaren prestakuntzarako Lege Aholku Batzordean parte hartu zuen Imazek. “Aurrerapauso garrantzitsua da transexualen izaera edo egoera pertsonal edo sozialagatik legedian dauden diskriminazioak gainditzeko, baina bidea luzea da oraindik”, aitortu du EHUko Berdintasunerako zuzendariak.

**Adinez nagusia den eta espainiar herritartasuna duen pertsona orok eska dezake sexu eta izen aldaketa dagokion bake epaitegian. Eskatzaileak, beti ere, derrigorrezko bi agiri hauek aurkeztu beharko ditu. Alde batetik, ezarri zaion sexuarekiko desadostasun irmoa frogatzen duen psikiatra batek egindako aldeko txostena, eta bestetik, sentitzen duen sexuaren ezaugarri fisikoetara moldatzeko gorputzak gutxienez bi urteko tratamendua jaso duela egiaztatzen duen agiria. Halaxe dio Estatuko 2007ko martxoaren 15eko Pertsonen Sexuari dagokion Erregistro Zuzenketaren Legeak, egun transexualengan eragin arautzaile handiena duenak.*



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZA

IKASTURTEA 2016-2017

MEMORIA

HALA JAIO DA: TRANSEXUALITATEA, ILUNPETIK ARGIRA

EGILEA: Etxahun Gonzalez Sarria

ZUZENDARIA: Iñaki Lazkano Arrillaga

Data, 2017ko maiatzaren 31a

Laburpena:

Pertsona batek jaiotzean genitalen arabera esleitutako sexua berak benetan sentitzen duenarekin bat ez datorrela identifikatzen duenean, ordura arte ezagutu ez den errealitatea azaleratzen da bere inguruan. *Hala jaio da: transexualitatea, ilunpetik argira* Euskadiko hiru pertsona transexualen bizipenak hiru dimentsio ezberdinetan kontatzen dituen erreportaje sakona da. Horretarako haur, nerabe eta heldu baten eta beren familien errealitatea ezagutzera eman dira. Ireber, Iraide eta Alairen errealitateak, hain zuzen.

Ezarrিতako eta sentitutako sexuaren arteko talka ematen denetik gaur egunera arte garatutako prozesu osoa jasotzen du erreportajeak: inposatutako sexuarekiko ukapenaren lehen zantzuak, gurasoen erreakzioak, zalantzak, zailtasunak, ezjakintasuna, onartze prozesua eta ezagutaratzea.

Izan ere, norberaren buruan edo inguruan transexualitate kasuren bat agertzen denean, ohikoena izaten da aitzakietan edo egokiak ez diren azalpenetan babesa bilatzea. Ukaezina den sentimendua nagusitzen denean ordea, pertsona hauekiko ikuspegia moldatu beharra dago familian, eskolan eta gizarteko beste hainbat esparrutan. Euskadin bakarrik, berrogei familia baino gehiago dira elkarre ezberdinen bidez edo beren kabuz pertsona hauen normalizazio eskubideen alde lanean ari direnak. Legeak moldatu egin behar izan dira, baita administrazio publikotik eskaintzen diren arreta zerbitzuak, eta ikastetxeek ere orain arte ezagutu ez duten errealitaterako aldaketa prozesua egin behar izan dute.

Sarrera:

Istorio on bat aurkitu eta nire hitzekin kontatu, besteek irakurri eta goza dezaten. Horixe bera izan zen kazetaritza ikasketak egitera eraman ninduen desioa, eta horretan aritu izan naiz azken lau urte hauetan.

Era berean, istorio txikiek duten xarma eta handitasuna beste inon ezin daitezkeela aurkitu ikasi dut. Ondo entzuten jakinez gero, gure inguruan milaka istorio daude kontatzea eta entzutea merezi dutenak. Milaka orrialdeko ipuina da gutako bakoitza, baina askotan, kontatzen asmatzen ez dugulako edo besteengana heltzea lortzen ez dugulako, ezerezean geratzen dira istorio hauek.

Iragan udan Errenteriako jaietan nenbilela, Ireber eta Amaia ezagutu nituen. Harrituta geratu nintzen kontaktu zidatenarekin, izan ere, ez nuen ordura arte haur transexual baten istorioa hain hurbiletik entzun. Galdera bat beste baten atzetik, denbora luzez aritu nintzen Amaiarekin hizketan, eta etxera bueltatu nintzenean, ezin nuen gaia burutik kendu. Harrigarria iruditzen zitzaidan hamar urteko ume batek niretzako hain ezezaguna eta pentsaezina zen sentimendu hori eduki ahal izatea.

Geroago kasu bakanen bat gehiago ere ezagutu nuen hedabideen bitartez, eta gizartean indarrez azaleratzen ari zen mugimendua zela ohartu nintzen. Ireber eta Amaia gogoratu nituen orduan, eta haien inguruan zerbait idazteko gogoia nuela adierazi nion Amaiari. Honek arazorik ez zuela eta laguntzeko prest zegoela erantzun zidan. Gradu Amaierako Lana aukeratzeko garaia iritsi zen orduan, eta esku artean nuen aukera hau aprobetxatzea erabaki nuen.

Sentimendu horren jatorria eta zergatia ulertzeko beharra sentitzen nuen, eta beraz, aurreiritziak alde batera utzi eta kontatzeko zuten guztia entzutea erabaki nuen. Izan ere, ondoren besteei ere fenomeno hau kontatzeko kapaz izan nahi nuen. Abantaila gisa ikusten nuen nire ezjakintasuna gai honi buruz idazten hasi nintzenean, izan ere, nireak ziren zalantza guztiak besteenak ere izango ziren, eta beraz, zintzotasunetik eta sinpletasunetik, zalantza horiek guztiak erantzuten saiatuko nintzen.

Ireber, Iraide eta Alairen bizipenen bitartez, eta haien errealitatearen inguruan mugitzen diren profesionalen azalpenen bidez, oraindik ere gizartearen gehiengoarentzat arrotza den mundu hau hobeki ulertzen lagundu nahi duen lana da hau. Horretarako biderik onena, hiru pertsona hauek esateko zutena entzun, antolatu, eta besterik gabe, besteei kontatzea zela pentsatu nuen. Errealitate hauen atzean ez baitago azalpen zientifiko, estatistika edo formula magikorik. Ezkutuan urte asko pasa dituen baina gure artean beti egon den errealitatea azaleratu da, besterik gabe.

Helburuak:

Erreportaje honen helburu nagusiak transexualitate egoera bizi duten hiru pertsona ezberdinen ikuspegi eta errealitate gizatiarra islatzea eta gaiarekiko gizarteak duen ezjakintasuna apurka-apurka ezabatzen laguntzea dira. Horretarako hiru adibide eta egoera ezberdin aztertu dira: Ireber nerabegarora heltzen ari den hamahiru urteko gazte transexuala da, Iraide transexualitatea isilpean eraman duen eta sexu aldaketa

prozesu osoa egin duen hogeitazortzi urteko emakumea da, eta Alai zortzi urteko haur transexuala da.

Izan ere, azkenaldian komunikabideetan eta gure inguruan haur transexualen kasuek geroz eta sona handiagoa badute ere, pertsona hauen inguruan dakiguna ezer gutxi dela konturatu naiz. Familiarekin eta lagunekin gaiaren inguruan hitz egin dudanean, "oso konplikatua da mundu hori", "horretarako oso ziur egon behar dira gurasoak", "haien burmuina ezin da gurea bezalakoa izan " edota "zelan egon daiteke pertsona bat horrelako erabaki batekin %100 ziur?" bezalako iruzkinak entzun ditut. Ezjakintasun horrek pertsona hauekiko izan dezakegun jarreran eragin zuzena duela uste dut, eta beraz, ahal den neurrian, zalantza horiek ezabatzeko egiazko istorio sakon, ulergarri eta hurbileko baten beharra zegoela uste nuen.

Arestian aipatutako erronkak lortzeko, kazetari bezala testu erakargarria, irakurterraza baina edukiz sakona idaztea lortu behar nuen. Lanak eskatzen zuen hedadura kontuan hartuta, zailtasunak ikusten nituen, sentsazionalismoan erori gabe, hainbeste orrialdetan irakurlea testuari lotuta edukitzeko. Idazterako orduan, beraz, tentuz ibili naiz aurretik aipatutako ezaugarriak batzen dituen eta kalitatezkoa den erreportajea idazteko xedez.

Metodologia:

Erreportajea egiteko jarraitu dudana prozesua honako pausoetan oinarritu da:

1. Informazio orokorreko bilaketa sarean:

Lehenik eta behin, Interneteko bilatzailean "transexualitatea" hitza jarri eta zer agertzen zen ikusi nuen. Asko harritu ninduten definizioaren inguruan dauden ikuspegi anitzek, haien artean antza bai, baina ez zutelako bat egiten. Gerora Euskadiko lurralde mailara mugatu nuen bilaketa, eta horrela hedabide ezberdinek transexualitateari buruz EAEn argitaratutako informazioak ikusi ahal izan nituen. Informazio gehienak azken lau urtekoak zirela konturatu nintzen. Bilaketa honek ere, Euskadin pertsona transexualekin lan egiten duten elkarten izenak biltzeko aukera eman zidan.

2. Bilaketa zehatza: Protagonisten hautaketa, elkarteek argitaratutako datuak, legedia, txostenak eta iturriak.

Erreportajea hiru protagonisten istorio pertsonaletan oinarrituko nuela erabakita, haien testigantzak arazorik gabe kontatzeko gai ziren hiru pertsona aurkitu behar nituen. Ireberren ama izango zen haietako bat, familiaren bitartez ezaguna nuelako eta bere kasuak inspiratu zuelako nire erreportajea. Bestalde, Chrysallis Euskal Herria elkarteaztertzen ari nintzela, Aingeru Mayor presidentearen kontaktua lortu nuen. Mayor Alairen aita eta sexologoa ere bada. Bere aldetik erabateko prestutasuna azaldu zuen eta oso iturri egokia iruditu zitzaidan hainbat ikuspegi landu ahal nituelako berarekin: aita bezala eta sexologo bezala, alegia. Legediaren inguruko iturri bat lantzen ari nintzela lortu nuen hirugarren protagonista. Leire Imaz EHUko irakasleak Iraideren telefonoa eman zidan eta honek ez zuen inolako arazorik izan nirekin hitz egiteko.

Protagonisten bizipenak entzunda, hezkuntza, osasun eta legediaren inguruko datuak bilatu nituen erakundeetako txosten ofizialetan eta profesionalen adierazpenetan. Gauzak horrela, haur, nerabe eta pertsona heldu baten lekukotzak jaso eta ikuspegi zabalago bat eskaini ahal izan dut nire erreportajearen.

3. Erabilitako iturriak eta kontaktuak:

Erreportajea aurretik aipatutako hiru protagonisten istorioetan oinarritu denez, hiru elkarrizketa sakon nagusi egin dira: Ireber eta Alairen kasuan beren gurasoekin, eta Iraideren kasuan, zuzenean berarekin. Horretaz aparte, beste sei elkarrizketa egin dira hiru protagonisten bizipenak adierazpen, agiri eta datuekin aberasteko. Beste bi pertsonarekin harremanak hasi nituen baina kanpo faktoreen ondorioz bertan behera gelditu dira, eta ez ditut erabili.

Sarean administrazio publikoek argitaratutako txostenak, balantzeak, protokoloak eta legedia aztertu dira, baita zenbait hedabidek ateratako informazioa. Gainera, ikerketa gune pribatu ezberdinek egindako ikerketak aztertu dira.

- Iturri pertsonalak:

- **Amaia***, Ireberren ama. Erreportajeari ekiteko arrazoi nagusiak dira biak. Pasa den uztailan, Madalenetan, Errenteriara joan nintzen gurasoekin eta bertan ezagutu nituen Ireber eta bere ama. Nire amaren aspaldiko laguna da Amaia eta bere alabaren kasua azaldu zidanean, kontatzea merezi duen istorioa zela pentsatu nuen. Erreportajearen lehen zatiaren protagonista nagusia da Amaia, eta

berari esker, Jon Bermeosolorekin, Ireberren irakaslearekin, elkarrizketatu naiz. Aurrez aurreko ordu eta erdiko elkarrizketa izan genuen.

** Haurraren eta familiaren intimitatea babesteko, abizenik ez erabiltzea erabaki dut.*

- **Iraide***, erreportajeko bigarren zatiaren protagonista da. Bere adinari, esperientziari eta prestutasunari esker, zuzenean elkarrizketatu ahal izan dudan hiru protagonistetako bakarra izan da (Ireberren eta Alairen bizipenak gurasoen bitartez kontatu dira). Leire Imaz, EHUKo Berdintasunerako zuzendaria eta irakaslearen bitartez ezagutu nuen, eta hari esker, Ireberrek eta Alaik eskainitako oso bestelako haurtzaroa eta gaztaroa kontatu ahal izan ditut. Erreportajeko sentimendu isilen, sexu aldaketa prozesuaren eta tramite administratiboen zailtasunen ahotsa da Iraide. Erreportajearen barna izan dudan elkarrizketarik luzeena eta sakonena izan nuen berarekin, ia hiru orduz. Iraidek kontatutako guztitik hautaketa eta laburpen zehatza egin behar izan dut, eta kosta egin zait zenbait pasarte erreportajetik kanpo uztea.

** Iraideren eta familiaren intimitatea babesteko, abizenik ez erabiltzea erabaki dut.*

- **Aingeru Mayor**, Alairen aita, sexologoa eta Chrysallis Euskal Herria elkarteko presidentea. Haur transexual baten aita bezala eta Chrysallis elkarteko presidente gisa, gaiaren inguruan elkarrizketatu dudan pertsonarik adituena dela uste dut. Berarekin hizketaldia izateak nire burua antolatzeko, ideiak argitzeko eta Euskadiko transexualen errealitatean kokatzeko balio izan dit. Alairen aita bezala, gainera, erreportajeko bigarren atalaren protagonista da.
- **Jon Bermeosolo**, Ireberren irakaslea Errenteriako Orereta ikastolan. Irakasle bezala eta Ireberren kasua ezagutu ondoren, berak eta Ikastolak hartutako neurrien inguruan aritu ginen. Irakasle gisa, sexu eta genero tratamenduarekiko hezkuntzak dituen gabeziak azaldu zizkidan.
- **Nahikari Yubero**, Lauaxeta Ikastolako proiektu arduraduna. Lauaxetak ez du oraindik transexualitate kasurik antzeman ikastetxean, baina sexuaren arabera banatutako espazioetan neurriak hartzen hasiak dira, eta horri buruz aritu ginen Lauaxetan bertan izandako elkarrizketa batean.

- **Leire Imaz**, EHUko Zuzenbide irakaslea eta Berdintasunerako zuzendaria. Pertsona transexualei dagokien lege esparrua aztertzen ari nintzela, Imazen izena aurkitu nuen lege dekretu baten osararako aholkularitza talde batean. EHUko langilea dela ikusi nuenez, lege eta eskubideen inguruan ideiak argitzeko elkarrizketa interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen. Bere bulegoan ordubetez izandako elkarrizketaren ondoren, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legediaren eta eskubideen nondik norakoak argitu nituen, baita Andaluziako eredu berritzailea ezagutu ere. Gainera, Iraiderekin harremanetan jarri ninduen Imazek.
- **Joserra Landa**, ISESUS sexologia institutuko psikologoa eta Chrysallis Euskal Herria elkarteko kidea. Haurren eta gurasoen jokabideei buruzko azalpenak jasotzeko elkarrizketatu nuen. Aingeru Mayorrek pasa zidan bere kontaktua.
- **Mariana Bustillo**, Biocruceseko psikiatria taldeko kidea. Pertsona transexualek Gurutzetako ospitalean igaro behar dituzten fase ezberdinei buruz aritu ginen ikerkuntza guneko batzar gela batean. Eskuratutako informazioa ikuspegi klinikotik protagonistek eta haien gurasoek kontatutako istorioak osatzeko balio izan dit.
- **Nahia Rojo**, Berdindu zerbitzuko sexologoa. Emetasun eta maskulinitate estereotipoen inguruko informazioa eta karakteren araberako sailkapenaren berri eman zidan.
- **Xabier Madariaga**, Radio Euskadiko kazetaria eta “Ur Handitan” telebista saioko aurkezlea. Madariagak haur transexualen inguruko dokumentala egin zuenez eta EITBko erredakzioan berarekin egoteko aukera nuenez, gaiari zernolako ikuspegia eman eta erreportajearen egitura nondik nora joan zitekeen ere eztabaidatu genuen. Bere aholkuetako batzuk oso lagungarri egin zaizkit elkarrizketetako galderak prestatzeko, nahiz eta egiturari dagokionez ez genuen adostasun handirik lortu.
- **Eragone***, Bermeoko hamalau urteko haur transexual baten gurasoa. Lankide batek eman zidan bere kontaktua eta bere semea nire protagonistetako bat izatea pentsatu nuen. Lehen kontaktua ondoren ordea, bere semeak ez zuela gaiaren

inguruan gehiago hitz egin nahi helarazi zidan Eragonek, eta beraz, alde batera utzi behar izan nuen.

* *Familiaren intimitatea babesteko, abizenik ez erabiltzea erabaki dut.*

- **Agustin Arandia**, Tolosako haur transexual baten aita. Epaille baten ezohiko auto batean, bere lau urteko alabari mutil izena neskaren izen bategatik aldatu zioten Erregistro Zibilean. Estatuko salbuespen kasua zela aprobetxatuta, berarekin harremanetan jarri nintzen, baina kasuak izan zuen oihartzun handia eta gero, ez zuela elkarrizketa gehiago eman nahi esan zidan.
- **Chrysallis Euskal Herria**, Euskal Herriko haur eta nerabe transexualen familien elkarte. Aingeru Mayor eta Joserra Landa izan dira elkartean egindako kontaktu nagusiak. Hala ere, telefono eta e-posta bitartez datu eta material baliagarria eman didaten beste kide batzuek ere prestutasun osoa izan dute ni laguntzeko.

- Iturri dokumentalak:

- **Berdindu**, Eusko Jaurlaritzaren sexu- eta genero-aniztasunari buruz informazioa eta arreta emateko zerbitzua da. Non: http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza//contenidos/informacion/berdindu/eu_berdindu/index.shtml
- **Izen aldaketa gauzatzeko Justizia tramiteak.** Non: <http://www.justizia.net/cambio-nombre/presencial>
- **Transexualitate egoeran daudenei arreta-integrala emateko gida (2016).** Eusko Jaurlaritzarena. Non: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_transexualidad/eu_def/adjuntos/guia_transexuales_eu.pdf
- **Pertsona transgenero eta transexualen egoera Euskadin (2013), Arartekoa.** Non: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1719_3.pdf
- **Espainiako 2007/03/15eko Legea**, Pertsonen Sexuaren Erregistro Zuzenketaren Lege Arautzailea. Non: <https://www.boe.es/boe/dias/2007/03/16/pdfs/A11251-11253.pdf>

- **234/2015 Dekretua** abenduaren 22koa, Euskadiko transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa. Non: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/dekretua/2342015-dekretua-abenduaren-22koa-transexualen-dokumentazio-administratiboari-buruzkoa/>
- **Berdindu Eskolako 2015eko balorazio txostena.** Non: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdindu_eskola_k/eu_servicio/adjuntos/BALANTZEA2015.pdf
- **Injustice at Every Turn (2011):** A report of the national transgender discrimination survey. Non: http://www.thetaskforce.org/static_html/downloads/reports/reports/ntds_full.pdf
- **Suicide Attempts among Transgender and Gender Non-Conforming Adults (2014).** Non: <http://williamsinstitute.law.ucla.edu/wp-content/uploads/AFSP-Williams-Suicide-Report-Final.pdf>
- **Los Angeles Times, Transgender study looks at 'exceptionally high' suicide-attempt rate.** Non: <http://www.latimes.com/local/lanow/la-me-ln-suicide-attempts-alarming-transgender-20140127-story.html#ixzz2rnTOn3ZM>
- **Eldiario.es, El desamparo de los niños transexuales que quieren cambiarse de nombre.** Non: http://www.eldiario.es/sociedad/menores_trans-transexualidad_infantil-cambio_de_nombre-Registro_Civil_0_411209025.html

4. Edukien antolakuntza

Erreportajearen muina Ireber, Iraide eta Alairen istorioak izan dira. Elkarrizketak egin eta protagonistek egindako adierazpenak multzoka sailkatu dira.

Amaiaren kasuan (Ireberren ama), hasierako zalantzek, ezjakintasunak eta ukapenek lehen multzoa osatzen dute. Bigarren multzoan onarpen prozesua bera eta horri dagozkion zailtasunak daude, eta hirugarren eta azken multzoan berriz, eskolan gertatutako aldaketak, osasun tratamenduko hastapenak eta arlo administratiboan izandako zailtasunak daude. Aipatzekoa da hezkuntza arloan egindako aldaketetan

gehiago sakontzeko beharra ikusi dudala, eta Ireberren istorioaren jarraikortasuna ez eteteko, hezkuntzari buruzko azalpen gehigarri horiek zatidura batean antolatu ditudala.

Bere esperientzia eskoletan ezagutarazteko ematen dituen hitzaldiekin abiatu dut Iraideren atala, Ireberren zatia hor bukatzen baita hain zuzen, eskolan. Ondoren, Ireberren kasuarekin alderatuz, Iraidek isilpean igaro duen gaztaroari egiten diot erreferentzia, eta azkenik, atal honen zatirik mamitsuenari heldu diot: osasun arloan eta arlo administratiboan sexu aldaketaren prozesuaren baitan Iraidek izan dituen zailtasunei, hain zuzen.

Iraideren kasuarekin gizartean ezarritako estereotipoen inguruko eskemak zalantzan jartzen dira, eta beraz, ondorengo atalak emetasunaren eta maskulinitatearen inguruko zenbait argibide eta hausnarketa biltzen ditu.

Bukatzeko, hasierara bueltatzea erabaki dut. Protagonistarik gazteena da Alai, eta bere aitak egindako adierazpen zintzo eta gizatiarren bitartez, transexualitate egoera bizi duten familien hasierako momentuarekin bukatzea onena iruditu zait.

Erreportajea osatzeko, gaiaren inguruko oinarrizko kontzeptuen glosarioa eta lege eredu berritzaile bat azaltzen dituzten zatidurak idatzi ditut.

5. Erreportajearen eta memoriaren idazketa

Erreportajearen idazketa GRALeko unerik ederrena izan da niretzako. Informazio eta iturri bilaketa luzearen ondoren, eduki guztiak antolatu, aukeratu eta modu argienean eta erakargarrienean idazten saiatu naiz. Egitura argi izanik, ez dut arazo handirik izan adierazi nahi nituen ideiak idazteko.

Ireberren, Iraideren eta Alairen istorioak errespetatzen eta daukaten balio informatiboa ahalik eta ondoen zaintzen ahalegindu naiz, haien kontakizunen bitartez transexualek bizi duten errealitatearen esparru ezberdinetan sakonduz.

Gustura sentitu naiz idazten, eta lana amaituta eta irakurrita, sentsazio hori berretsi dezaket. Neure buruari hasieran jarritako helburuak lortu ditudala uste dut, testua irakurterraza, erakargarria eta balio informatibo handikoa delakoan bainago.

6. Zuzenketak

Berrikusketa eta zuzenketak lanaren prozesuaren azken parteak izan dira. Zorionez, egitura argia dela pentsatzen dut, eta beraz, ez dut berregituraketa edo aldaketak garrantzitsurik egin behar izan.

Hala ere, hainbat zuzenketa egin ditut, noski. Esaldi korapilatsuak eta luzeak berriro ditut laburragoak, zehatzagoak eta ulergarriak izan daitezten. Zati batzuetan anbiguotasun zantzuak antzeman ditut, eta beraz, berriz irakurri eta lehen irakurketa batean ulertzeko modukoak bihurtu ditut. Beste batzuetan informazio osagarriarekin osatu ditut, azaltzen ziren ideiak indartze aldera.

Iturriekin ere behin baino gehiagotan harremanetan jarri naiz, hasiera batean nahikoa argiak ziruditen adierazpen batzuek bigarren azalpen bat behar zutela pentsatu dudalako.

Hainbat berrikusketaren ondoren, irakurlearen gozamenerako den erreportaje zehatza eta argia idatzi dudala uste dut.

Ondorioak:

Esandako guztiaren ondoren, lan honetan parte hartu duten pertsona guztiei eskerrak ematea baino ez zait geratzen. Esker bereziak Ireberri, Iraideri, Alairi eta beren familiei, pertsona hauek guztiak eskaini didaten laguntzarik gabe ezinezkoa litzatekeelako *Hala jaio da: transexualitatea, ilunpetik argira* erreportajea egitea.

Bestalde, erreportaje sakon bat idaztearen zailtasun guztien gainetik, ikasitakoarekin geratzen naiz. Lau urteren ondoren, benetako kazetari sentitu naiz lan hau burutu bitartean. Etorkizunean halako istorioak kontatzen jarraitzea gustatuko litzaidake, *hardnews* lantzea baino gehiago, trataera sakona eskatzen duten gaiak patxadaz eta egokiro jorratzea.

Bukatzeko, transexualitate egoeran dauden pertsona, familia eta elkarte guztiei eskaintzen diet lan hau. Transexualitatearen errealitatearekiko gizartean dagoen ezjakintasuna pixkanaka-pixkanaka ezabatzeko eta aurreiritziak alde batera uzteko nire ekarpena da *Hala jaio da: transexualitatea,, ilunpetik argira*.